EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

| | |
|---|---|
| Dokumentu mota / Tipo de documento: | EBAZPEN PROPOSAMENAK |
| Nori zuzendua / Dirigido a: | LEGEBILTZARREKO MAHAIA |
| Proposatzailea / Proponente: | ZABALA, ALAITZ (EA-NV)<br>CORCUERA, SUSANA (ES-SV) |
| Data / Fecha: | 2021.06.28 |

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12\10\08\00\00002
Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Euskadiko Erakunde arteko ekintzailetza Plana 2024 (EPP, 2024) // Plan interistitucional de emprendimiento y de Euskadi 2024 (PIE, 2024)

1. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu ditzala batez ere ekintzaileei eta enpresa txikiei zuzendutako arreta-, aholkularitza- eta orientazio-zerbitzuak, indarrean dauden programen berri izan dezaten eta horietan sartzeko administrazio-izapideak errazteko.

PROPUESTA Nº 1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a, reforzar los servicios de atención, asesoría y orientación dirigidos especialmente a las personas emprendedoras y las pequeñas empresas, para que conozcan los programas vigentes y se les faciliten las tramitaciones administrativas para acceder a ellos.

2. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala 2024rako Euskadiko Ekintzailetzaren Erakunde arteko Plan berria, bertan ezarritako helburuak bete ditzan, Euskadin ekintzailetza ekonomia eta gizartea eraldatzeko benetako palanka bihur dadin, post Covid 19 esparru berrian.

PROPUESTA Nº 2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que impulse el nuevo Plan Interinstitucional de Emprendimiento de Euskadi 2024, para que cumpla con los objetivos establecidos en él, contribuyendo a que en Euskadi el emprendimiento se convierta en una verdadera palanca de transformación económica y social en el nuevo marco post Covid 19.

3. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Eusko Legebiltzarrean aurkezpena egin ondoren,

PROPUESTA Nº 3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, transcurrida la presentación en el Parlamento Vasco,

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

Euskadiko 2024ko Ekintzailetzaren Erakunde arteko Plana eta Eusko Legebiltzarrean lortutako akordioak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren mekanismoak eta lan-organoak aktibatu ditzala.

active los mecanismos y órganos de trabajo necesarios para un adecuado desarrollo del Plan Interinstitucional de Emprendimiento de Euskadi 2024 y de los acuerdos alcanzados en el Parlamento Vasco.

4. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala bultzatzen, 2024rako Euskadiko Ekintzailetzaren Erakunde arteko Plan berri honen bidez eta inplikatutako erakunde eta eragile guztien konpromisoarekin, ekintzailearen ibilbidea ahalik eta gehien erraztea, ideiaren kontzepziotik hasi eta enpresa-proiektua gauzatu eta finkatu arte.

PROPUESTA Nº 4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe impulsando, mediante este nuevo Plan Interinstitucional de Emprendimiento de Euskadi 2024 y con el compromiso de todas las instituciones y agentes implicados, la facilitación máxima del recorrido de la persona emprendedora, desde la concepción de la idea hasta la materialización y consolidación del proyecto empresarial.

5. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jar ditzala ekintzailetza-prozesuaren kolektibo, tipologia eta etapa guztiei arreta emango dieten ekimenak, ahaztu gabe kultura ekintzailea belaunaldi berrietan sortzea eta Euskadi ekiteko leku erakargarri gisa kokatzea.

PROPUESTA Nº 5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a poner en marcha iniciativas que atiendan a todos los colectivos, tipologías y etapas del proceso emprendedor, sin olvidar la generación de cultura emprendedora en las nuevas generaciones y el posicionamiento de Euskadi como un lugar atractivo para emprender.

6. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala aitortzen udalek eta tokiko garapen-agentziek ekintzailetzaren arloan egiten duten ekarpena.

PROPUESTA Nº 6. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar reconociendo la contribución de los Ayuntamientos y Agencias de Desarrollo locales en materia de emprendimiento.

7. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sakondu dezala ekintzailetzaren aldeko apustuan, euskal gizarte jasangarriagoa lortzeko, Agenda 2030en eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuen ildotik.

PROPUESTA Nº 7. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a profundizar en la apuesta por el emprendimiento para lograr una sociedad vasca más sostenible en línea con la Agenda 2030 y los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible.

8. PROPOSAMENA. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala ekintzailetzaren euskal ekosistema indartzen,

PROPUESTA Nº 8. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar potenciando el ecosistema vasco de

tokiko eta nazioarteko eragileen arteko loturak eta lankidetzak biderkatuz, beharrezkoa izanez gero, eragile berriak sartuz eta gaitasunak eta zerbitzuak zabalduz.

emprendimiento, multiplicando las conexiones y colaboraciones entre agentes locales e internacionales, e incorporando nuevos agentes y ampliando capacidades y servicios, si fuera necesario.

EA-NV

ES-SV